EGUNA JEL

Egija.
Euzkadi Abeſi txikija da, geuria baña.
Eta bere luſaldiaren neurkin bat eta euzkotar bat diran bitartian iraungo da.

Lgo. urtia | 120'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 22'gna. larunbata | 15 eunen

EUZKO GUDA-OÑETAN

JOALDIRIK EZ ZAN EGIN ATZO GURE MENDIETAN

Arerioak, nekatuta, ezeban buſukarako gogorik egertu. Gure kañoiak paxisten batzaldi bat sakabanatu eben Barazar gañean. - Alemaniar egazkiñak etengabe ibilli ziran egun guztian, guda atzetako eſi ta tokiak suagatzen. Gudari bat gure aldera, paxistei igesi.

BAKEA

Bakea izan gendun atzo egun guztian gure mendietan.

Mungia aldean, Bizkargi'ren oñetan eta Arratia'ko guda oñetan ez zan joaldirik eta buſukarik egin.

Bare-aldiau luzarotsua izango ez dan uste ta itxaropena dogu.

Arerioa atzo ixilik agertu ba'zan, buſukarik egiteko gogorik barik agertu ba'zan indarrak batu, joaldi bafien bat eraldu ta buſuka bafietarako gertutcafen izango da.

Ezpai barik esan geinke ori.

Arerioak oraindik bere joaldietan jafaitu beaf dau. Orain asiko joaldia ez da makalena izango.

Gertu egotea yagoku.

Izkillu ta gizon guztiak batu nai izango ditu oraingoan, berak ames egiña dabena lortu al izateko.

Edozelan agertuta be, euzko gudariak, zuf eta tinko aurkituko ditula esan beafik ez dogu. Aufierako joaldiak eta bufukak ikasbide edefik emon dauskue. Eta gogoa indaftu, sendotu, kemendu dauskuela esan daikegu.

Arerioak, edozelan etofita be, gudarozte indaftsu ta menperatu eziña idoroko dau oraingoan aufez-aufe.

Uste ta ziurtasun orixe dogu.

Gure gudariak arerioak laga eutsen bare-unean, gogorketa lanak egiten iñardu eben atzo guda oñik geienetan.

Aspaldion esku alpefik ez da ikusten gure mendietan. Euretan jokatzen dana ondo dakie gure gudariak eta origaitik unerik ez da galtzen arerioarentzat eragozpen izango dan zerbait egin barik.

Ofela atzo esiak-esi egin ziran itxasondotik Afatla'raño ta emendik Burgos'ko mendi-oñetaraño.

Esiok egiten iñarduen bitartean, gure kañoiak arerioa zirikatzen ibili ziran mendi guztietan.

Afatia aldean jo eben bizien eta beroen kañoiak.

Sebigain ganean surik naiko artu eban atzo be ta bertan dagozan gudari paxistei ez yakoen baketan laga eta dan egilea eragozpendu yaken.

Barazar gañean arerioaren batza bat ikusi zan ta gure kañoiak gogof jo eben, paxisten artean eriotzea zabalduaz.

Bizkargi'ren tontofera eta gibelera be kañoiak su ugari bialdu eben, arerioa bere esietan gordeta egotera beartuaz.

Zornotza eta Mungia aldean len lez jafaitzen dabe gudarien esiak. Zornotza'n eleizako tofean izkilazkaf bat iniñi dabenafen, ez dira oraindik sartzen ausartu paxisten gudariak, gure gudarien suen mende lotuko litzakezalako.

Egunotan efi onetan eta bere inguruetan jazokunik izango dan ustea dogu.

EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABEKO AMAÑETAN EMANDAKO AGIRIA:

Ipafalde gudoñak (Bizkaya)

Atzoko gure joaldiekaz mindueta arerioak ez dau bizitasunik agertu, artileriaz eta egazkiñakaz egin izan daben ondoren argaleko lana izan ezik.

Erdiko gudoñetan (Araba)

Artileri ta morteroen buſuka eta paxisten egazkiñen Ikusketa-ibilketak. Barazar gañean ikusi zan arerioaren batzaldi bat sakabanatu dabe gure kañoiak, ikusitako bajak eragiñaz.

Egoaldeko gudoñetan (Burgos)

Aipagafirik ez.

BESTE GUDA-OÑETAN

Bizkai'ko guda-oñetan legez, Araba eta Burgos'ko guda-oñetan be bakea izan zan.

Orduña'tik aspaldion egiten dan antzera, kañoiak su ugari jaurti ta zabaldu eben Beretin alderantz, paxistak ainka jokuan ipiñiaz.

Une batzuetan alderdi bitzuetako kañoiak buſuka txikiak izan zituezan baña ez ziran alegindu bufukaldiok luzarotsu egiten.

Beste aldietan aipagafirik ez gendu oartu, beti izan ol diran tiro banaka ta ariñak izan ezik.

Gudarietan gogo ona ta adore bizia igafi genduzan eta arerioak egin daikezan joaldietarako geftu tinko dagozala autortu beaf dogu.

EGAZKIÑAK

Lan ugari egin eben atzo be paxisten egazkiñak.

Guda oin batetik bestera dagozan bidetan zear ibiltea afiskutsu zala esatea naiko izango da.

Egun guztian gañetik kendu barik ibili ziran Zornotza eta Mungia'ko bidetan.

(Azkenengo ofian dafai.)

Edestia irakasle

Edestia irakasle bikain eta yayo dogu.

Gizon andien ekintzak, efien egitada goralgafi ta aipagafiak, abefien bizitzako bufukaldi indaftsu ta setatsuak, edestiak erakutsi ta irasten dauskuz.

Edestian idoro daikegu gure elburuen mamiña ta gure bizitzako ekintza oroen zikenaren itufia.

Euzkotafok bereziki, gure edestira begiratu beafean gara, edesti ofek, mundu guztian begirapena baño lortu ez eban gureedesti garbi ta zinduak, gure ekitaden sustraiak gordetan ditualako.

Azkatasun gudetan gure asabak eta gure gurasoak izan ebezan bufuka ta joaldi gordin eta odoltsuak irakurtera juan ezkeroz, edestia abefi-miñez eta abefi aldezko buru-eskintzaz beterik idoro daikegu.

Euzko efi guztia, abefiari abesti leuna izan dala esan daikegu, bere bizitza guztian eta bere bastef guztietan.

Abesti leun eta gozo onein artean, etoiak, saltzaleak ez dira falta izan. Onaren gibeletik okerak urteten dakiala esaten dabe; edeftasunaren kolkotik urteten dabela itxusikeri ta baldafkeriak. Baña onoimena loitu ta zitaldu naiean jagiten diran bedaf txafok, onoimenoi, birtuteol andiagotu ta apañago agertzeko besterik ez dirala izaten, ezin ukatu.

Ofelaxe euzko edestian. Azkatasun miña nabaitu eben gizonen artean ainbat idoroko doguz, bilatzera juatekotan, abefia etoikeriz eta zitalkeriz saldu ta afotzaren eskuetan ipinteko gertu egon zirenak une guztietan.

Ez dagiguzan izenik aitatu. Ainbat dira. Geiegi zoritxafez. Adinaikeriak eta afotasunak indafik izan eben beti euzko afonutzen artean. Euzkotafen efua izan zan eurok sustraitik ez ebagitea; eurok loran egozala igartu ez erazitea azkatasun zalien efuz bakafik izan zan.

Zenbat bidaf gure asabak, efiaren gibeletik iagiten ziran asaba ze eta bulafstuak, bedaf okefon zitalkeriak negaftu beafean ez ete ziran aurkitu. Gernika'ko zugatzaren kerizpe berbetan atan be bein baño safiagotan?

Orduko gaitza ta obenak, mindu ta zitalduten gaitue gaur be.

Euzkadi'ren kaltez, Euzkadi'ren aurka diarduenen artean, gure odol berbera daruen ugari darakuskuz. Gofotorik bizien eta beroen darabilenak eurak dirala aitatu beafean aurkituten gara. Begi argitsuak ez dira beaf ori ikusteko.

Euzkotafak euzkotafen aurka jardueak min damosku. Euzko izatea apurtuten eta ezerestuten gabiltzala usteko dabe askok. Baña Amaren aurka jagi diran semiak efuki gitxi merezi dabe. Ama il eta menperatu gura daben seme gaizto eta deungeak, ezespena eta gofotoa besterik ez ditue merezi. Ama eriotzeagaz ematu eta jo nai izan dabenak, eriotzeagaz jo ta luferatzea legezko da.

Euzko edestiak safitsu adierazoten dauskuz saltzaleak menperatu ta ilteko gure asabak egiten zituen bufukak. Azkatasunak ofetaraxe beartuten zitun. Abefiaren bizitzeak ezpataz jagitea eragiten eutsen.

Antxiñan legez, gaur be ezpatak eskuetan daroaguzala gabiltz euzkotafok. Eriotzeagaz zematuten jafi ziranen aurka burdiñezko esku zofotza dogu. Euzkdi odolez bete da. Odol ori ez da alpefik galdu beaf ofaitio. Odol lafegi da. aztu ta bastartzeko. Odol lafegi da lorarik ez emoteko!

Odol artetik azkatasuna jagiko yaku. Azkatasun garbi ta emaikofa. Azkatasun oferi bideti landuten asi gaitezan, ekaitz ondoren eguzkiak argi egingo dau-ta, lañoak bultzatu ta uxatzen alegintzen ba' gara.

Gure asabei begiratu dagiegun, azkatasunaren aldez jokatzen ebenetan. Euretatik ikasi ta euren lana obetutea gure beafkuna.

Iñor egongo ete da une lafi ta neketsuotan bere laguntzarik ukatuko dabenik?

AKILA.

Sasijan zafapafea entzun dogu. Eta guk EGUNA'kuak zafapafarik entzuten dogunian, sosua ezta ufun ixango.

Eta gaurko zafapafea auxe dogu: Franco españaf gudalburubak mandatari bat bialdu dautsola Euzkadi'ko gobernufari bakiak egin-biaf doguzala esanaz.

Berari Bilbao'n, geure Bilbao edef onetan sartzen laga dayogula onian, ezpa be, txafian zer galdu geyago ixango dogula-ta.

Onian, asko irabazi ei-daikegu, ba, lenen-lenengoko opalmena eriiotzatik gaizkatzia ixango ei-geunke. Eta ondoren bafiz ¡ene ondoren! ondoren jauja. "Amplia autonomía" era gustijetako laguntza zabala ta... ¡nik dakit ba zein bat denganiño geyago! Goxetan txokolatia ogera ta eulijak nok kendu! e, etxaku paltako. Ain dira andijak bere eskeintzak...

Emen baña, Franco'ren idazkijari bafe egin eta atzarara jaurti ei-dabe-ta... goxak txokolate barik eta udea eulijekin igaro biafko dogu, "bedeinkatu" ori arin-arin Bilbao onetan sartzen ezpa'yaku beintzat.

Eta orixe gaiztxuba ixan. ¿Zer ba, efeza izan ba'litza uste dozu agertuko zala eskeintza ofeikaz?

Ganera oraiu, "amplia autonomía" ta pefetxikoekaz?

Euzko-mendijetan ixuri dan odol-gofi-samufari geyagorik zof yakok. Euskadi'ren azkatasun osua geure-geuria yuaguk. Biaf ba, odol geyagorik biafko yuaguk, baña ez yautzagu geure Euzkadi zoragafi oni tantatxu bat bera ukatuko.

Beraz "autonomi" zabal ori eruan beyoek zoritxafez euk agintzen dokan lufaldeko biztanlici, areik pozkiro artzia ba'litekek-eta. Bai, orixe egikek, orain "autonomi" ori emon, gero, azkatasuna azkatasun osua geuk eruango yautseguk-eta.

Edo, zer ba? Euk agintzen dokan lekuban egiten eztokana, agintzen eztokan lekuban egin-gurok?

Txotxo, oketzeko bixefok aintziñatxu uzatu yakuazan guri olako tentelkerijei jaramon egifeko.

¡Eta batez be orain, afanuak eta mafaskiluak doguzanian! ¡Leku onera etofi az!

* * *

Afanuak eta mafaskiluak... ¿zer dirala ta zer dirala inakufle? ¿Igafiko? Nik bayez uste. ¡Oi zure begija!

* * *

Paxisten ateruko gaituzak.

Gipuzkoa'ko Aldundijak, euneko irurogei jaso dau bere zerga edo kontribusiñua.

¡Edefa "autonomijea"!, e?

ZER-ESANLARI

Frantzia'ko izpafingiak eta Eſi-arteko goraberak

"Le Figaro"k Ingelatefa'ren jokalegeari burus:

"Abere-uletsu-muetako pizti da Ingelatefa. Balea nora eldu dan jakin al izateko itxaron egin beaf izaten da. Abere-mueta ofetako piztiak zitaldu daitezanean arerioa erpeperatu arte ez dira gelditzen eta beste gauza guztiak bastartzen dabez.

Ingelatefa Italia'kin egiz, asafetu daitenean, Italia zuzitu al izan daiten, Alemania'ri bezuza edo efegalurik onenak, be, emon egingo dautsaz; Mussolini'k ori jakin beaf leuke."

* * *

"Le Petit Journal"ek Ingelatefa'ren itxas-indafei buruz:

"Roma'k eta Berlin'ek aufez iragarten dabenez iñork menderatu ezin al izango daben terdioko gudontzi-saila egiten diñardu Ingelatefa'k. Iñoren sailak norberatzeko gogoa izan daben guztien bilduſgafi izan, be, egin dau Ingelatefa'ko gudontzi-saila.

Ingelatefa'ren gudontzi-sailoi zala-ta. II Gilelma'k bere abefia ta gero mundu guztia nastu ebazan guda-nagusian.

Inglatefa'ren itxas-agintaritza ta eskuartearen aurka egiteko alkartu dira paxistakeri-zale diran latefiak. Orixegaitik alkartu nai dabe Mussolini'k eta Hitler'ek.

Italia'k eta Alemania'k dabezan zer-galduak Europa osoari yagokazala azal du nai dabe Mussolini'k eta Hitler'ek. Ori azaldu ezin daikena da adimen argiz ta indafez siñestu eragin nai dautse Latefioi ori.

Inglatefa'ren guda-izkilu geitzeak atonduko dauz autuok."

* * *

"L'Ere Nouvelle"ek Inglatefa'ri ta Italia'ri buruz:

"Londres'ko izpafak diñoenez Italia'ko Aldundian Ciano'k egin daben ingelatefaf izpafingiak azalpen gabe argital'u dabe. Inglatefa ixilik dago, Italia'ko jardunoi jaramonik ez dautsola egiten esan daike. Itzaldi ori entzutean oraintsu Italia'k egintzetan eta jardunetan azaldu izan dabezanak gogoratzen izan yakoez ausago ingelatefoi. Egintzoi buruz, be, tautik ez dau esan eta itzei jaramon gefagorik egiterik ez dau nai.

Atzoko egintzak eta gaurko itzaldiok alkartzerik ez dau nai. Bureskunde-ja/ ostean atondu ezin daikezan "ez" ta "bai" atontzen asteko gogorik ez dauka. Ciano'ren esanetan beer ixiltasunoi ontzat emoteko bideren bat idoro dau ausago."

* * *

"L'Oeuvre"k Alemania ta Italia'ren asmo biufiei buruz:

"Eritxiok azaldu daiguzan. ¿Alemania'ri ta Prantzia'ri, Italia'ri ta Prantzia'ri zuzen yagokuen auzirik ez dago? Alsazia ta Lorena ez al dauz eskatzen Alemania'k? Italia'k Korzega, Saboya ta Niza iñorentzat, be, ez diñoanafen za'baikunde-jardunetan, beretzat ez al dauz nai? Eta Tunez'eri buruz 1936'gn. urtafilez Laval'ek eta Mussolini'k egin eben Itunbena ¿azalkeri edo ederkei uts ez al da? Ofek olan ez ba-dira oba.

Orduan zer gertetan da?

Autuok baiño gafantzitsuago dau zerbait; Europa'ko goraberai buruz aburu bi doguz; bata latefi-mugak aldatu ta Europa'ko goraberak zuzentzeko tokí bafiak egin nai dabezanena da ta bestea, Briand'ena, Europa'ko aufera pen-zale ta gogo-lantze-zale guztiak, Europa'ko bizikera ta gogolantzeoi aldatu nai dabenen aurka egiteko, alkartu nai dabezana.

Alemania'k ta Italia'k lenengo aburua dabe."

* * *

Japondaf "Asahi" izpafingiak Ciano'ren itzaldiari buruz auxe diño:

"Alemania'k eta Italia'k sortu nai daben paxista-taldeko Japon dan ustea dauka Ciano'k. Italia ta Alemania'kin paxistakeri alde edo baltsakeri aurka egiteko asmo utsez alkartzeko gogo aundorik ez dauka Japon'ek."

BILBAO'KO izpariŋgiak

"Euzkadi"

Oraingo gudariŋka onetzaz idazten dau. Egijari auŕpegija emon biaŕ yakala diño. Egija ostendutiaz ezer ez dala irabazten esaten ei-da esan be. Aldi laŕi ta estubetan, baŕiz, egija ostendutia kaltegaŕi ixaten dala.

Bein baño saŕijago esan ixan ei-dabe, ta txalotu be, gure gudariŋen gudeari eusteko adoŕa ta trebetasuna. Arerijuen erasorik gogoenari eusteko trebetasun ori toki baten baño geyagotan agertu ixan ei-dabe, agertu be, gure gudariŋak.

Arerijuak gogoŕen oldaŕtu ixan dauzan tokijetan, Elgeta'n eta Solube'n be, guregudari trebiak esku-aŕa bateko atzeruntzik egin baŕik eutsi ei-eutsen arerijuen eten bako gudariŋkeari.

Orain aŕte esan ixan dauana egija dan lez, baña, beste au be egija dala esaten dau: gure gudariŋak galdu ixan dabezan guda-tokijak, arerijuak makalen eraso ixan dautsenetan galdu ixan dabezela.

Eta ŋazokan bakan ori uleŕtu eziñeko tzat esten dau, ta uleŕtuteko arduŕea dauŋoenak uleŕtu biaŕekotzat.

Arerijuak bere indaŕ gustijakaz oldaŕtuten dauŋanian; bere guda-izkilu gustijak, egazkiñak eta suagalariŋak guda-erariŋ gogoŕenaz oldaŕtuten dauŋanian atzeruntz egitia, ulertezea dala esaten dau, indaŕaren aurka ekitia alperikua dala-ta. Baña arerijuak makal eta ezetariko indaŕ, baŕik oldaŕtuten dabenian ezetariko eragozpen baŕik aurera egiteko bidia azke lagatia, orixe ei-da benetako uleŕkatxa.

Jazo biaŕ ez litzakezan bakankeŕijok jazoteko, ixan biaŕ ez litzan zoztoŕen bat bai ei-da oŕ, nunbaŕen. Zoztoŕ ori kaltegaŕi ei-da, baŕiz. Beraz, kaltegaŕija dan zoztoŕ ori ufunduten alegindu biaŕ ei-da. Gudea irabazi gura ba-dogu, irabazi, zijorik gitxijen daguanian uts dagijan zoztoŕ ori bidetik kentzia biaŕ-biaŕekua dala diño azkenian.

"Tierra Vasca"

"Gu azkiak gara" esan eta gura da bena egiten aleginduten diranen aurka ldazten dau. Catalunya'ra begiratuten dau, ta an uaŕtu ixan dabena atzaldu. Euren buru-jaube eurak dirala esaten daben asko bixi diraŋa diño aldearetan. ¡Paxiotaŕen arerijorik aundijenak dirala esaten ei-dabe. Izkiluba aŕtuta abeŕija aldeztuten guduñera juan biaŕ damian baña, etxian geratuten ei-dira abeŕi-alde baño aurka dagozan egiñenak samuŕago egiteko.

Era oŕetako eŕi aldezliak (?) ondo zaindu biaŕ dirala diño, ta oŕetarako eskubidia daukan Jaurlaritzak biaŕ dan neuŕijan eskuba ezaŕi biaŕ dautseka. Orain eraldu dan Jaurlaritza, ori ta geyago egiteko bo gai dala agertuten dau, oŕetarako biaŕ dauan indaŕa eŕijagandik aŕtuta daukala-ta.

Eta onetako Jaurlaritza batek, baŕiz, bidetik urten eta agintariŋei eragozpenak liminendabiltzanak eskuratuteko, indaŕak bindaŕ daukazala diño. Eta indaŕok bide diraŕa, okeŕ dabiltzan oŕeik beriala zuzenduko dauzala esaten dau, zuzentze ori biaŕekua dala ixan be-ta.

"Euzkadi Roja"

Izpariŋgi onen lenengo ingoskija, iragaŕki-antzo idatziŕako izki baltz aundijakaz idatziŕa agertuten da. Ona, emen, izki baltz aundijotan irakuŕten dana:

"Idatzaŕtu zadi, Bilbao. Zemaŕuten gauzan aŕiskubaren auŕian, gustijok Jaurlaritzeaz. Eta erabageiz sendotuta aurk'tzen dan Jaurlaritza, Euzkadi ta Eŕkal-aldez. Aldeztze-eralguntzan ume bateko astirik be ez da galdu biaŕ. Eta berau onurakoŕa ixateko bide bat baño ez dago: Buruzagitza bakaŕa beragan dauan euzkotaŕen lendakariŋaren inguru-biran gustijok batutian. Guda-izkiluba eskuban aŕtuteko gai diran gixon gustijak guda-leŕuetarako igikundia. ¡Guda-esiz gudoñak sendotutia! Guda arazuetan ez dagozan gixon gustijak, guda-esijak egiten ibiltia. Gure ola gustijakaz guda-gintza sendo bat egitia. Eta azkenez, guda-atzetijan aurkitzen diran arerijo gustijak guda-atzetik kentzia. Bilbao'ren gaizkakundia oneik gauza gustijok lenbait len aŕera oruatian ei-dago. Gauŕ, berton asi biaŕ ei-gara lan au egiten. Eta Bilbao, paxiotaŕentzat ez ei-da ixango."

"Lan-Deya"

Gudea irabaztia gura ba-dogu, irabaziko dogula diño, gura ixatian al ixacia daguala-ta.

Jakiun batek esan oi-eban lez, onako edo alako zeozer loŕtu gura ixaten daben asko bixi ei dira g'zaŕtian. Loŕtu gura leukien gauza ori loŕtu al ixateko, baña, alegiñik txikijenik be euren aldetik ez ei-dabe egiten.

Alegiñik bako gura ixatia eta ez gura ixatia, bijak ei-dira bardiñak, baŕiz.

Loŕtu gura leuken gauzea loŕtuteko alegin apuŕ bat egiten dabenak be ba ei-dira. Alegin gusti-gustijak egiten dabezenak, baña, gitxi be gitxi ixaten dirala diño. Ezer loŕtu gura dabenak, baŕiz, alegin gustijak egin biaŕ ei-dauz. Eta gaŕantzi aundiko gauzea loŕtu gura danian, baiz, alegin gustijak eta zeozer geyago be bai.

Gexorik aurkitzen ei-gara, ta ixaŕto aurkitu be. Gexo onetatik osatu gura dauanak, osokayak aŕtu biaŕko ei-dauz, baña osakayak mingotzenak ba-lira be. Osakaŕ aŕtu-eŕazak eta ariñak baño aŕtu gura ezdauana, ez ei-da osatuko. osatuterik gura bo ez dauala-ta.

Guda-auŕetira juan biaŕa dogun aldi onetan, atxaki-matxakiko gudeari igesi-egiŋiaren biaŕtekuak aŕtuta dabiltzanen batzuk ikusten diranian, aiko-miŋkustaŋ ibili barik salatuteko diño, salarugaŕijak dirala-ta. Zuzutsa egiteko eguna elduko ei-da.

Frantze, francetaŕak ixatia gura dabena ixango da, Clemenceau'k esan ei-eban. Eta gure lendakariŋak be, guda au buruz, olantxe esan ei-eban: "Geuk, euzkotaŕok gura ba-dogu, irabaziko dogu."

"El Liberal"

Lau mila neskatu-mutiko London'era juan dirala diño. Guda ezeskaŕi onen igesi London'eratuko diran neskato-mutikoik, begijetan negaŕa dabela agurtu ixan dirala esaten dau, ta lau mila sendi saminez saminduta emen itxiŋa atzeŕiruntz egin ixan dirala.

Umiak egijaren antzikuŕak ixaten ei-dira. Eta England'eko Jaurlaritza-gixonak, gudearen igesi duazan ume eŕukaŕi onetan ikusi gura ei-leukie España Eŕkala'ren gogua.

España Eŕkala'k ospe txaŕa ei-dauka, ba, atzeŕijan. Ospe txaŕ au atzeŕijan edatu ixan dabenak, Eŕkala'ren arerijuak diran paxiotaŕak ixan eidira.

Eŕijaren gogua, ume bakunetan ikusten ei-da, ikusi onduen. Eta basati-antzo azijak dirala uste dabezan umiak otoi egiten eta abaŕ ikusi dagijezanian, ikusi, englandaŕ asko ta asko aŕituta geratuko ei-dira. Lau mila neskato-mutikuon aŕtian, katolikuak ez diranak be exango ei-dira. Geyenak, baña, uskuŕtzaliak dirala diño, ta amabost jauparik zuzenduta duazala.

Englandaŕak lasteŕ ikusiko dabezala diño Bilbao'ko umetxubak zelako azkerako umiak diran.

Seme okeŕak urten dio España'ko eŕege izan zanari

Habana.—Covadonga'ko kondea, espoñaŕ bakaldungai izandakoa, eguraetu-asmoz, Cuba'ko itxa-pasteretaruntz aŕantzara atera da, azaipen ikaragaŕjak argitaratu ondoren. Bere aitarekiko aŕtu-eman guztiak ausi zituala eta zeaztasun guztiaz España ta bakaldun izandakoaren sendiaren etorkizuna Franco'ren esku dago'la azaldu zuan.

Covadonga onelaxe mintzatu zan: "Neŕi nere aita bakaldunak egin didan nardakeria, oraingoxe bide auxe jaŕaitzea erabakitzera beaŕtu nau ta ez dut uŕatz bat ere atzera emateko asmorik.

Gertatzen dana gerta dedila, nere aitak egin dezala egin nai duana, laster ezkonduko naiz ni Rocafort'taŕ Marta aŕa-man dudan kubaŕ neskatilarekin Ene burua beŕiro jaurgora jasotzeko eskubideai buruz, Franco'ren esku dago guzti ori, matxiñada-buru; bere esku dago nere sendi ta España'ren etorkizuna ere.

Aitak egin dionaz min minduta, auxe esan du ixilean izpariŋgirako.

Nere aitak izpariŋgi bidez ditu enekin aŕtu-emanak; ni-neuk ere orobat dagt; baiña, ori jauregian beti izan oi diran aolkulari batzuen saŕtu-najak eragindakoa dana milagaŕen aldiz desat, astia nola eman ez dakiten dirudun "señoritiloak" eragindakoa. Aolkulariok, nork entzun ere ez dute-ta, bakaldun-sendiarentzat edena baiño ez dute. Nik nabarmenkerion beŕi izpariŋgi bidez jakin-arazotzea erabaki det.

Tamal derizkio kondeak bere aitaren jokerari eta auxe jaulki du itun-miñez: "Nere aitak nardagaŕi ba'nau ere, maite naute ni nere aŕeba ta amak. Nere aitak nerekin aŕtu-eman izpariŋgi bidez ba'du ere nere aŕeba ta amak, euren eskuz, eskutitz xamur eta maitekoŕak idazten dizkidate".

Sanchez Arcilla'taŕ Josseba idazkariak azalpenok izpariŋkariai ematerakoan kondea zearo asaŕe dala bere aitaz esan zien eta idazlan-sail bat agertzekotan dala gaiñera españaŕ bakaldun izandakoaren jauregian gertatutako nabarmenkeri guztiak argitaratzeko.

PAXISTEN EGAZKIÑAK

Adar otsak

Ainbat aldiz jo euskuezan atzo be adaŕ otsak.

Paxisten egazkiña Bilbao'ren gañetik ostera batzuk egin zituezan.

Bonbarik eze ben jaurti oŕaitio uri baŕura.

Guda oñetan gañetik kendu barik ibili ziran.

Bidietan ibiltea gaitz zan, bide oŕeik zaintzen egun osua ibili ebeŕiko.

Lezama eta Sondika'n bonba ugari jaurti zituezan eta euren loŕatzak laga.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Jaurlaritzaren batzar berezia atzo.-Etziko janari banaketa.-Orniketa libretak zuzendu beaŕa.-Abelgoŕi jaubiei deia.-Gordelekuetan osasun neuŕiak zainduteaz.

Lendakaritza

BATZAR BEREZIA

Atzo Zaingo'ratu giñanean, Gobernuak Batzar berezi zuala esan ziguten.

Amaikak jota asi zuten batzaŕa ta ordubatak eta erdietan amaitu. Burukide jaunak kanporaka asi ziranean, Leizaola jaunari lotu gintzaion iparkariok batzaŕaren beŕi jakin naiaz eta Gobernuko idazkari ta Zuzentza ta Gogo-lantzeko burukide danak auxe jaulki zigun:

"Orniketa arazoa bide batzaŕtu gera burukidepk eta atzeŕitik jatekoa ekartzeko bear diran atzeŕiko ikuŕak loŕtzeko era izan degun batzaŕ-gai.

Onetzaz gaiñera Eŕi-Zaintza'ko menpekoen ertzain-lanari buruz jardun degu zerbait. Eŕi-Zaintza egoki burutzen dute eta paxistaŕen aurkako gudatetik-at emen atzean dauden Eŕi-Zaintza Zaingoaren menpeko beste batzuk ere alkar onik artzen dute.

Gudateari buruzko agiri idaztitxoa eskuratu ziguten gero, laugaŕena. Argi ta garbi dager idaztitxo oŕek gudate ontan Alemania Franco'ren alde buru-belaŕi sartuta dagona.

Batzarean jardun zuten Guda-Eguraiak temente bati, guda-oiñetatik iges egin zualako, leporatu dion eriotz-espaiari buruz ere."

EMOKUN GEIAGO

Erbeste arazuetako arduradun nagusiak, Mendiguren jaunak, Inglateŕa'ko konsularen ageŕaldia izan ebala adirazi euskun, eta andere batek emonak ziralaeta, bost libra esterlina utzi zituela, ongintza edozein arloetarako emonak zirala-ta.

Beste andere batek ere, amaŕ librako emokuna abind eutsala adirazi eutsan konsulak.

Stevenson jaunari eskaŕak emon eutsozan andere eskuzabalei adirazteko eskatuaz

Saleroskeŧa ta Orniketa

LASA JAUNARENEAN

Edari ta Eroskeŧateko zuzendari nagusi Lasa jaunarekin lotu giñanean, emakuntza batzuen beŕi eman zigun lenengo.

Eritegietako bear-izanak onritzeko dira emakuntzok. Esku-zabal eta biotz-zabalik ez da palta basteŕetan.

—Gaiñontzeko iparik?

—Oraingoz ez beintzat.

—Eta zer diguzu arako lengoan altatu ziguzun eŕazio banaketari buruz?

—Oraindaiñokoan ez dut ezer gertu, baiña bakaneta egin, datoŕen astez egingo da.

—Zeintzuk gai?

—Ez zaŕtezte zaspiki izan, garaiz jakin -erazoko dizutet eta.

—Asko, asko?

—Bai, bai, asko; baita oriua ere.

BELTRAN JAUNARENEAN

Orniketa Zaingoko zuzendari nagusi Beltran jaunarekin gero aldi:

—Atzo zeintzuk gai emango genitun eŕazio-banaketan esan nizuten, baiña zenbat ez. Onenbestexe banatuko degu:

Patatak, 500 gramo.
Gozokaia, 250.
Aŕoza, 500.
Gatza, 500.
Mermelada: bi buruko sendiarentzat, 125 gramo; iru ta lau burukoentzat, 250 gramo, eta bost eta geiagokoarentzat, 500 gramo.

Beste gauza bat ere nai det gaiñera izpariŋgi bidez jakin-erazo: atzeŕira joan diranena kendu gabeko liburutxuarekin saltokiratzen diranak salatu lenbailen.

Ondoren Zaingoan jasotako emakuntza batzuen beŕi eman zigun Beltran jaunak:

Kaleko saltzaile batek, Eritegietarako, 200 laurleko.

Armendariz'daŕ Todor jaunak, Gizarte-Laguntza'rako, 100 laurleko.

Quintana'ren emasteak, Gizarte-Laguntzarako, 25 laurleko.

Nekazaritza

Bilbo-baŕutian zenbat abelgoŕi dauden lenbailen jakin-beaŕa danez, eta loreilako 17'gnez, edatutako deiaŕi oraindik eran tzun gabekoak badiranez, euren izen-abizenak Abeldegi-Idazkaritzan emateko, 25' gaŕen arteraiño luzatzen da epea.

Zuzentza ta Gogolantzea

EPAIKARI BEREZIA IZENDATU

Epaikari berezi izendatu dau Zuzentza artezkaritza nagusiak, Saez Jimenez'taŕ Josu, Pascual Herrgueras'taŕ Nikola'ren eriotzeazko zertzelada ta argitasunak ta yutu ta eratu dagiazan. Zaingo onen azilaren 25'gnko. aginduaren arabera, jazokun ori gertaera aŕunta ezpai-da.

Ekaipari berezi ori berealakoan lanean asi bedi.

Gizarte-Laguntza

UMEAK EŔIKATZEAZ

Pozik aurkitu genduan atzokoan Bustos idazkari nagusia, goizean Inglateŕa'rantz urte eben umeak egoki antolatuta atera zirala-ta.

Umien ontziratze antolapenak mintzez argazkitu ditu eŕusitaŕ pelikula etxe batek. Egundoko ‹gokien egin zan gertuketa lan neketsua, ta bera ikustera jaurlaritzako burua ta burukide batzuk eldu izan ziran kaieraño.

Ogetamasei ordu inguru egingo ditu bidean "Habana" ontziak, esan euskun Bustos jaunak. Inglateŕa'n dogun euzko ordezkariari itxas-uŕutidatzez adirazi dau tsegu ontziaren urteiera ta aŕa noizko lez elduko dan.

Orain, ume pila geyago emendik eŕikatzeko lanetan diardugu baŕiren baŕi, geitu euskun. Ez da nolanaikoa lan astun au, bañan Zaingoko langile guztiak alkaŕen leian ari dira guda aŕiskuetatik alik geien ataretako jardunetan, pozik eta gertu alaere.

Biar azalpen ugariago egitekotan agurtu ginduzan idazkari nagusi azkaŕak.

EMOKUNAK

Ila onen 19 eta 20'gn. artu diran emokunen kopurua, 6. 653,30 laurleko da.

Gintza-zaingoa

LANDOLAK ERABAŔITUAZ

Burukideak agindu bat agertu dau, eralguntza erabaŕituaz Zaingo onetan, aŕlo batzuetan lan ugari pilatu bai-da ta beste arazu batzuk banatuteko beaŕizana sortu.

Idazkari nagusi izan dan Lafuente jauna arduraz aldatu da, eta Zaingo ontan eratu dan Lege-adirazletzako buru izendatu da jaun ori.

Oŕen ordez idazkaritzan, Goñi Uŕitza'taŕ Joseba geldituko da gaurgeroz.

Eŕi-zaintza

"HABANA" TA "GOIZEKO IZAŔA"

Barikuan goizean goiz atera ziran San turtze'tik, "Goizeko Izaŕa" ta "Habana" ontziak, onek lau mila ume baŕuan zitula. Umeok Inglateŕa'n lotuko dira, ta Southampton'en kaieratuko dira.

"Goizeko Izaŕa" ordea, Frantze'rako eŕunbua artuaz joan zan.

Bart, bariku gabaz zirala ontzi geiago urteteko adirazi euskun, Luisa jaunak, iparkariakin egin eban izketalditxoan.

¡Ofila!
Lugiñen creintza-ila,
Lugin-bila solora,
joranez juan gara:
lugiñik ez, soluan...

Landara juan gara,
baso ezera eldu,
soluan galdu dira.
Egazkiñen suagak
kendu dautse bixitza.
Arto-aŕija eŕe.
Iuŕ-landubak edendu,
lugintzea ondatu,
zorijona deuseztu
ta zoritxaŕa loŕtu.

Notiñak,
gixon gordin-gordiñak
bide-bide, urduri,
egazkiñen igesi,
zoro batzuk bai-liran
arin, galdu-gordian,
bide-ziaŕ dakusguz.

Emakume gaxuak,
titiko umetxubak,
besuetan daruez...
Ta golik egazkiñak,
txeŕenaren otseñak,
atze-ziaŕ jaŕaiuz,
suageak il dituz,
basapizti bai-diran.

¡Zer dok au!
¿Gixabidia nun dau?...
¿Nun, Kristo'ren lagija?...
¿Nun, geide-maŕasma?...
¿Nun, gixaŕte-zuzutsa?...

Landak, lorarik barik,
itxorj barik, basuak.
Lugin barik, soluak,
etxe barik, sendijak...

Egazkiñak ortzian,
etenge sutotsian
baratzak deuseztuten,
basuak ondatuten,
soluak apuŕtuten,
lugiñak lufalduten,
¡sendijak zatituten!...

¡Zer dok au!
Gixabide ba-dok, au,
¡bua, gixabidia!...
¡Ua, ua, emetik!,
¡gure Euzkadi maŕetik
soŕtu intzuan tokira!

¡Ofila!
Lilib'txijen ila,
Lilí bila landara,
joranez juan gara:
ta lilirik ez landan...

¡Ofila!
Txori-kabijen ila.
Kabi-bila basora,
joranez juan gara:
kabirik ez, basuan...

¡Ofila!
Aŕkeneko eguretaruntz egiten asita dakusgu, ofila. Aurtengo oŕila, oraiñ arte ezagutu ixan doguzanen antzik bakua dala esan leike. Landetara begiratu dogunian, loratxu bat be ez dauskula ekaŕi begiandu yaku. Len lora-toiki ixaten ziran landa zabal edeŕak, karabi-zulo egin ixan dirala. Lorariik ez bedaŕ barik ikusi ixan doguzan landa ufatubetan, txeŕenaren goldia-edo ibili ixan da, aurki, zelai ziran landa orlegijak, u'atuz eta troka ezañez ezainduta agiri dira-ta.

* * *

Beste urte batzubetan, oŕila'k, gentzearen abeslariŋak ixaten ziran txoriñoak busuetaratuten euskuzan. Eta mutiko bijuriŋak-eta, areik ekaŕen ebezan kabixuak idoroten, basoetaruntz igituten ziran

Aurten be, oŕila'k, gentzearen abeslariŋak diran txoriñoak ekaŕiko ebazan. Gudearen geznariŋak diran galtzairuzko txori baltzak ekaŕi ixan dauz baña, txeŕenak. Eta azkenengo oneik ixan dira gentza-xoriño alayak euren baso orlegijetatik jaurti ixan dabezan gaizkiñak.

* * *

Solo-aro edeŕak ekaŕi ixan dauz, oŕila'k, aurten be. Beyak eta goldia auŕetik dabezala soloratu ixan dan lugiñari, baña, txeŕenaren txoriŋak dirala diruditen egazkin baltzak, golik bera oŕiaŕtu ixan dautsoe, ta bai, goldia ta luzia, lufari ezaŕita imiñi ¡Aurtengo oŕila'ren ituna! Amaituteko geratzen yakazan bederatzi egunak zorijon obarik ekaŕen ez ba-dauskube, ekaŕi, aurtengo oŕila'k bijotzetaratu ixan dauskun mingotzak, bixi garan aŕte gustijan iraungo dauskula uste dogu.

* * *

¡Ofila!
Lugiñen creintza-ila,
Lugin-bila solora,
joranez juan gara:
lugiñik ez, soluan...

Landara juan gara,
baso ezera eldu,
soluan galdu dira.
Egazkiñen suagak
kendu dautse bixitza.
Arto-aŕija eŕe.
Iuŕ-landubak edendu,
lugintzea ondatu,
zorijona deuseztu
ta zoritxaŕa loŕtu.

Notiñak,
gixon gordin-gordiñak
bide-bide, urduri,
egazkiñen igesi,
zoro batzuk bai-liran
arin, galdu-gordian,
bide-ziaŕ dakusguz.

Emakume gaxuak,
titiko umetxubak,
besuetan daruez...
Ta golik egazkiñak,
txeŕenaren otseñak,
atze-ziaŕ jaŕaiuz,
suageak il dituz,
basapizti bai-diran.

¡Zer dok au!
¿Gixabidia nun dau?...
¿Nun, Kristo'ren lagija?...
¿Nun, geide-maŕasma?...
¿Nun, gixaŕte-zuzutsa?...

Landak, lorarik barik,
itxorj barik, basuak.
Lugin barik, soluak,
etxe barik, sendijak...

Egazkiñak ortzian,
etenge sutotsian
baratzak deuseztuten,
basuak ondatuten,
soluak apuŕtuten,
lugiñak lufalduten,
¡sendijak zatituten!...

¡Zer dok au!
Gixabide ba-dok, au,
¡bua, gixabidia!...
¡Ua, ua, emetik!,
¡gure Euzkadi maŕetik
soŕtu intzuan tokira!

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALE BIDEZ, EUZKADI'KO NEKAZARI ETA AŔANTZALEAK ABERTZALETUKO DITUGU. ABERTZALEA ZERALA DIOZUN OREK EZ OTE DIGUZU LAGUNDUKO EKITEN, DIOGUN LAN ABERKOI ONETAN?

JANARI BANAKETA

GAIAK

Patatak, gozakia, gatza, aŕoza ta mermeladea

DATOŔEN ASTELENEAN

BAKOTXARENTZAT

PATATAK	500	gramo.
GOZAKIA	250	"
AŔOZA	500	"
GATZA	500	"
MERMELADEA (lagun birentzat)	125	"
(irutik lauraño)	250	"
(bostetik aurera)	500	"

SANEURIAK

PATATAK	0'75	kiloko.
GOZAKIA	1'80	"
AŔOZA	0'90	"
GATZA	0'20	"
MERMELADEA (125 gramoko potua)	0'65	
(250 gramoduna)	1'25	
(500 gramoduna)	2'00	

Txartelaren zenbakia: 35.

IRAKURRI TA ZABALDU



Euzko - Gudaroztiaren aldizkingia

ATZERRIKO IZPARRAK

Irlanda'k zindoki jaŕaitzen dau bere azkatasuna zaintzen

Irlanda eta Inglateŕa'ren arteko adizkidetasuna ta artu-emonak zinduak dirala uste ez izateko, ez dala juan Barakaldeŕiko batzaŕera agertu dau De Valera'k. Frantzia eta Alemania'k egin nai daben ogasun itunbenerako eragozpenak. Lateŕi Batzaŕa'ren batzaŕetan Sandjak eta España'ren autuak erabagiko dira.

IRLANDA'REN GIZONTASUNA

Londres. — De Valera'k Dail'en egin daben itzaldi baten, Inglatera'ko Barakaldeŕiko batzaŕera zegaitjk juan ez dan agertu dau. Irlanda'k Batzaŕera ordezkaŕirik bialduko ba'leu, esan dau De Valera'k, eŕi bitzuen arteko artu-emonak eta adizkidetasuna berua diŕala agertu ta erakutsiko ljtzake egunda ofegaz, eta Irlanda gertu dagola Inglatera'gaz batera lan egitera.

Irlanda'k bereziki ezin daike batzeŕan Bakaldeŕi-aldezkeŕeatzaz jardun, Inglatera'k, Irlanda'ri itzjk eta eritxi rik eskatu barik, gudaroztak gure eŕi ra bialtzeko eskubidea dabela uste daun bitartean.

OPORA

Paris.—Rouen'go portuan lanik ez da egiten ugazabak lock out dalakoa erabagi dabelako moletako langilien aurka. Portu aretan dagozan berogetamabost ontzjk ezin dabe ez bete ez utzi tu. Lock-out dalakoa iru mjle langile baño geiagontzat da.

IZPARKARI BAT AZKATU

Londres. — Arthur Koestler, ingeles izpaŕkaria, Malaga artzean paxistak gixilotu ebana, azke dago, Gibraltar'ko ingeles agintariak egin dituen lanei eskeŕak.

ONTZI BIK ALKAŔ JO

Londres. — Pretoria alemanjaŕ ontzjak eta "Helka" ingeles petroleozkuak, alkaŕ jo dabe lañ artean Holanda'ko itxasertzean. Olandaŕ ontzi batzuk urten dabe euretako lagunen bila. Ingelesa ziaro jota agertu da. Bañuko mariñelak ogetamabi dira.

FRANCIA ETA ALEMANIA

Paris. — Frantzia eta Alemania'ren artean egin nai dan ogasun tratadua egiteko eragozpen ugari bjkatu ta idoro dira. Schacht Paris'era eldu aurretik, akordurik ezin egingo dala uste da.

DELBOS ETA VAN ZEELAND

Bruselas. — Delbos, Frantzia'ko ministrua eldu da uri onetara Van Zeeland jendakarjagaz itz egiteko asmotan. Ikerlaldi oneri buruz izpaŕingirjk geienak uste dabe, gauza baŕirik ez dala agertu ta atarako, Belgika'ren erbesteagazko politikea, Frantzia eta Inglateŕa'k jofalaren 24'an, egin eben agirian ondo agertua geratu zalako. Ala ta be uste da jardunaldiok Sarkaldeko tratadurako bideak zabalduko dituela.

LATEŔI BATZA'N

Ginebra.—Politikuak eltzen asi dira datoŕen asteko batzaŕetarako gertakizunak eta ikasketan egiten. Politikoen ustez batzaŕ ofeitan Sandjak'go artuak eta España'ren autuak erabagiko dira.

ALEMANIAŔAK ASAŔE

Lateŕi Batuetan Alemanja'k daben ordezkariak asaferik biziena agertu dautso gobernuari Mendelein kardenalak egiñiko agerpenakaitik.

PAXISTEN ARTEAN

Berlin.—Foreing Office'k agertu debenetik, paxisten artean ogetasei ingeles eta irlandaŕ bj dagoz. Arduradun gobernuak alegiñak egiten asi dira eurok atarateko.

EREPUBLIKAŔEN ALDE

Paris.—Roma'tik jakin diran izpaŕ batzuk difioenez, espaňaŕ erepublikeren aldeko agerpen ugari egiten dira Roma'n. Askp dira italiaŕ langilien artean espaňaŕ erepublikaren iratiak esaten dabezan izpaŕak gogoz entzuten dituezanak. Gogozko gudaŕirik agertzen ez dalako, Italia'k bere gudarozteak bjaltzen ditu España'ra.

MUNDELEIN KARDENALAREN ITZALDIA

New York. — Mundelein kardenalak bere itzaldian agertu ebezanetzaz jarduten dabe izpaŕingirjk geienak. Kardenal oŕek Hitler'eŕi "Austria'ko erpapeladore" deitu eutson eta "kirten" Goebels'ri, naziŕaŕak katolikoen aurka dagien politikeatzaz jardutean.

Kardenala asko mindu zan katolikoei egiten dautsezan ezespenak jakitean eta bereziki pantzezkataŕ praleal egiten dautsezanak. Kardenalak maite ditu biotzez pantzezkataŕ monjak. Oneik Lago'ko apaiztegiaren ondoan dabe etxea, Mundelein taldearen ondoan, Illjnois'eko lateŕian. Monja oneik alemanjaŕak dira izatez edo jatoŕiz, eta euren zerekiñen gaňera, Mundelein kardenalak urberik geiena igaroten daben apaiztegiko abade ta jkasleen janarien ardurea dabe.

KOMUNISMOA'REN ETA PAXISTAKERIAREN AURKA

Londres.—Roosevelt'en ordez Bureskunde jaiotan izan dan James Gerard'en omenez oturuntzea edo banketea egin eben atzo. Efegearen eskintza ta bureskunde jaj jkusgaŕira etoŕi zala adierazo eban; askatasun eta alkalizaletasun lokaŕia egundo baiño alkartuago dirauan Bakalderi aundi baten eskintzea izan zala Bureskundeoj azaldu eban. Naiz izan ez dozuenaŕen, jkiluz Lateŕiol ornitzen diňarduzue ta asmo zuzenez ormidu, be. Izkiluz ornidu daitenean Inglateŕa izango da bake-zaintzalierik aundiena munduan. Guk Ameriketa'n iru asmo doguz ta asmo sendoak euki, be; gudearen aurka gagoz lenengo; lateŕi egiune edo alkartzeen aurka bigaŕen eta irugaŕen Europa'ko auzi aŕiskutsuetan sartzearen aurka. Zuek eta gu baiña, lateŕi egiune edo itunbenak baiño lokaŕi sendoaguekin lotuta edo alkartuta gagoz; baltsakeri edo komunismoaren eta paxistakerjaren aurka bakeari eusteko dogun asmoak alkartzen gaitu anek eta gu.

Txoriak nai ditugu

Txoriak dirala ta eztirala makiňat entzun eta esan bearean gera aspaldi ontan. Lenago aiton zaŕ bat (abuelo) bederik ba genduen Bilbao'n eta bere bilobatxoak alboan zituela edo bakaŕik maiz ikusi oi genduen ortzean zear egaka. Aiton ura asaŕa izan nunbait eta il zitzaigun, bilobatxoak ere ahutira jun zitzaizkigun eta batere gabe gelditu giňan.

Etsai lotsagabe asko baitegu gure artean ixilean gordela gau ta egun gure alatari ari gaizkigu ta oyen bitartez Mola'k jakin du gu nola arkitzen giňan ta gauzak ondo oldoztu eta gertu ondoren Bilbao artzeko asmoz erasoka asi zan orain ilabete ta erdi.

Egazkin on eta ugariak bildu, kañoi beŕienak gudari bulartsuenak eta atzeŕitaŕ gudalburu jakintsuenak Bizkai'ratu ditu eta, egia esan, auferatu ere as'co egin du. Bañan Mola'k oraindik bere jasnoak ez ditu bete, Bilbo baita Mola'k Hitler eta Mussolini'ri eman mai dien ordain sarna. Madrid berak baño gafantzi geyago du rin Bardluoňottŕŕŕŕ eta et Madrid alde batera utzi ta Bilbo aste geyago du orain Bilbao'k Mola'rentzako. gure lufaldera; bañan Bilbo oraindik gurea degu ta beti guretzat nai genduke.

Nola zainduko degu? Euzko-gudariekin? Orainarte euzko-gudariak izan dira bere eusle bakaŕak, baña danak jao baitez beste zaindari ta lagunen beaŕa daude: egazkiňak.

Betoz aiton zaaŕaren antzeko txori bat-uck eta bakoitza biloba pila bat aldean tuela bijoa gudariei laguntzera, Bilbao aintzera, makaŕoi zaleej arin arinka erasoka. Orduntxe bai Bilbo zainduko degula, orduan bai Euzkadi azkatuko degula. Betor lenbaitlen egun zoragaŕi ori.

LEABURU'TAŔ BIKENDI

LIBURU BAŔI BI

Liburu baŕi bi agertu ta idaztitegietan saltzen ipiňi dira egunotan. "Un cardenal español y los católicos vascos" darua ixenpuruta:at lenenguak. Katolikoen artean zabaltzeko asmotan egiña da, Amerikatakoen artean bereziki. Frantzeraz egiña amaitzen dago eta ingelesen izkuntzara laster biurtuko da.

Liburu onek euzkotaŕen alde lanik eta ondorenik lortuko dabela uste dogu, Gomá kardenalak gure aurka esanak gaiztetsi ta ezetsiten ditulako, euzko izate ta jokabidearen egia agertuaz.

"Contribución de los vascos a la formación y a la ciencia del Derecho" izenduna da bigaŕena. Leizaola'taŕ Josu Mirena, Zuzentza ta Gogo-Lantze'ko arduraďun argi ta jakintsuak egiña da.

Euzko-Ikasle-Batza'k eraldutiko jai baten itzaldi antzera esateko zan au, liburuan irakurtean poztu gara.

Lan sakon eta mamitsua da, egiearen lan guztien antzera eta euzkotaŕon jakintza ta izatea zindoki ta zoriontsu ikusten da bertan.

Liburu au ingeles izkuntzara biurtua da eta argitaŕpena noiz amaitzeko dago Londres'en.

Frantzerara belaster biurtuko da.

Liburu bitzuok Bilbao'ko liburutegietan salgai ikusi doguz eta irakurle ugari izango dituen ziurtasuna dogu, irakurgai diralako.

AŔOTZ BAT TXAŔA DA EUZKADI'RENTZAT, BAŇA ASKOZAZ TXAŔAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTAŔA.

Izpar jakingaŕiak

POZAS JARDUNEAN

Barcelona.—Pozas generalak izpaŕkariak artu zituzanean esan eutsen, ez eukala zer-esanik.

BASEŔITAŔEI LAGUNTZEN

Valencia.—Nekazaritza'ko arduradunak izpaŕkariei agertu eutsen baseŕitaŕei laguntasuna eskintzeko lege-gai bat ebala.

LENDAKARIA AGURTZEN

Valencia.—Atzo goizean Azaňa jaunak Albornoz'en ageŕaldia artu eban. Bere atzetik Aranguren jauna juan yakon. Ondoren Eŕi-lanetako eta Zabalkunde Zaingoko idazkari nagusiak aguŕtu eben.

ERTZAŇEN LANAK

Madrid.—Alcala de Henares'en ertzaňak lan bikain eta goralgaŕi bat egin dabe. Ertzaňak paxistaŕ talde bat batzen zala jakin eben eŕi oŕetan. Bertaratu eta beaŕ ziran lanetan ekin ebenean, ondoren onak atarako ebezala laster igaŕi eben. Oŕela paxisten talde bat bilatu dabe. Talde au oraintsu batzen eta eralduten as'a zan eta lenengotako lanz eŕi aretako espetxean sartu ta espetxeratuak (presuak) kanpora ataratea izango zan.

GUDARITZARAKO DEYA

Guda zainguak agertu daben agindua beteaz, legoŕeko 1.927, 1.926 eta 1.925 gaŕen urtetako gudariak eta itxasozko 1.926, 1.925 eta 1.924 gaŕenekoak, gudaritzarako aurkestu bearko dabe iru egunen buŕuan.

Aurkestuta gero, beste deietan bete izan diran zertzeladak bete bearko ditue.

Gastia zutunik

Iraŕtingitzea ayergea zala esan nertzun, eta Lopez Pelaez Jaka'ko gotzain. ixan zanak dirauskuna entzun gura ba' dozu, au gitxi dala jakingo dozu. Aldizkako iraŕtingitzea, beronen gardiz ta ustez, ona berenez, bere lxatez da, augatik, gaiztorako darabiňenak oben astunagua jaukiten dabe. Iraŕtingitzea ellaren egala betetan dauana da; itz egiten dauanagandik ufin ufinetan diran zenbatu ala ta geyagogana tximiztia baxen bizkoŕ eduten dana itza: oldozkunak alkaŕi emon, eta norbadagantzeko aldija ta azkunia albora izten dauzan odimen laguntzalia: urtja urte, eŕi ta abendak banantzen dauzan burnesijak, mate suz, urtuten dauzan bijotz baltsuba: gixa-sendi andiko banakijak batuagotzeko joki baŕija.

Eta txan-be, gixakijari yaokan edozer ta gustija, iraŕtingitzaz gixaki bakotxarena da, iňorentzat lana neuretzat be bai-dala-ta. Edozein jazokun gaŕantzitsuk, jakintzazko auŕerakuntza gustijak, bata gixaŕteko gaikizko naiz zilegitiko obaŕijak, bata edozein ezpiaŕ, zoritxaŕ, negaŕ, atsekabe, oňazek ufutizkiňezko joroňuak burnarijak iŕatoska imiňita gero, arime gustijak baŕunaŕutiko giaŕ-giaŕak iŕatoska jaŕten dabez.

Bai, iraŕtingintzea, eguneroko ingoŕiz batez-be, gaŕantzitsuz aldintsu-aldintsuba dala ezin iňok ukatu.

Ekiňa nagosi esan ei da, eta onantxe da ixan-be. Ekiňez jadesten ez dogu-na, ez dogu ezetara be jadetsjko.

Eziňena irugijena be baňa, ilogiňak edozer zulatzen dauan bez, ekiňak bigundu, ebagi ta eskupeko egin darua.

Josu-Kjsto'k be otoyaren aldiňa baldintza oni ezaŕten dautsa, eta ogi-eske gau-beranduan auzokora eldu zanak, beste,an etxeratuko ez eban ogija eruan eban bez, gaurj be otoltietan gogatu-barik ekitekuak ixan gadixala diraus-ku. Eta egunoroko izpaŕingijak au ondo baño obeto dakit, eta egokijago eziňian iňarduten dau.

Jakimiňak berenez gariala ezagutzen dau, eta egunoro baŕirik baŕijenakaz ingoŕijak bete, eta aizkide-antzo eduten yatzu. Aŕbu daigun, gogoŕkerirjk ez dausku egingo, eskuban ixan dagigun baňa, garian tokijan gariala ixang dogu.

Etxetik urteten ezpagara be, atian deunkiro dei-egingo dau, eta iňor aterazen ezpa-yako, abepatjtik apaikiro bifuraulso da, eta apalez ostikopian ixango dogu.

Etxetik urtetan ba'gara, edonoz, txaidian, salokijan, landoian, jantegijan, txindetxian, bixaŕtegijan, batzokijan, jauretxeko atietan, egurastokijan buruba eskintzen agiriko yaku.

Augatik, izpaŕingija irakurten ez dauanik ez edoda: Neskamjak bixigai zaran darua, eta aŕtzen dabe atezanak, okiňak, jostunak, oikeragiňak ozkigaŕbitzaňak, ozkigiňak, egostunak, saloskerijak, olagixonak landolakarijak lugiňak, zaldunak, ugazabak anderaňuak, etxakandra, arotzak, afgiňak, burnelarijak, burnarotzak. ¿Baňa nok ez? Ara, irakurten dakijan edozeňek.

Eta andijenak, zeuk lez irakuŕi be poz-pozik, egaŕitsu, beruenak aŕtuta, egaŕiz jloten dan gexo erukaŕijak ura edaten dauan baño be sutsubago.

Saŕitan, goxarija bera baño be gurago dala, iňoz, asi gitxiz edo, izpaŕingija irakurten goxarija gaŕtzen dala, bata olara beju erduta, goiz laureneko irabazija be. Onetarikuak geure begiz ikusi doguz, eta ez dira amesetak.

Eta andijagua, aizkide-antzo, eta onen apal agertzen yatzun izpaŕingi ori zeuk ordaindutą etexeratzen dozu.

Eta ordaintzea astunduten dautsobenjan, senengotan moŕmoŕka batzuk bai, baňa bera-barik ezin bizi zaŕake-a, dana-dalako ori ordaindutą, len baño be gaŕtsubago ieku emoten dautsazu.

¿Eta onen bestjan kutun zuk eta enparuak dozuben izpaŕingija aldintsuz baldintsuba ixatiak aŕimentsu egiten zau? Berak zure ta eŕijaren gardijtzaz ez agindutia, zu ta enparuak beretzat ez irabaztia ajatza jtxake.

Zutunik ixan bjaňa dozula-ta, zutunik ixan gura dozun gastian, be, gaiztorako izpaŕingijak ugarijako baño ez dira, eta onen aldintsu dan arerijuari ez egikiozu eskurjk iňoz be, ta ezetara be emon, ez egxuz onak baño irakuŕi, eta gastedijari jaŕaipide ona emonda, zutunik ixan dadin, zutoin aldintsuba eskuratuko dautsazu.

MONTXOŔ.

Iraŕtingitza: Prensa, lectura.
Jauki: Cometer.
Azkune: Espacjo.
Banaki: Individuo.
Zilegizti: Moral.
Iŕatoska: vibrando.
Oikeragin: Modisto.
Egostun: Cocinero.
Burmelari: Hojalatero.
Gardi: Opiniln.
Burnarotz: herrero.
Sariketarako buruz egiňa.

GUDA-AUTUAK

Españar auzia lateŕi batza'n

Italia minduteko bilduŕez, erabagi gogoŕik artzen ez ete dira ausartuko eŕiak?

ESPAŇAŔ AUZIA LATEŔI BATZA'N

Ginebra. — Espaňaŕ gobernu baŕiak ez dau astirik alpeŕik galdu nai, Lateŕi Batza'n, espaňaŕ auzian alemanak eta italiaŕak parte artu dabela-ta arazu au argitutea eskatzen jarduteaz.

Valencia'ko gobernuaren Erbeste-ara zuetako ministru baŕiak, Giral jaunak, Batzaŕera oar bat igoŕi dau gaur, eta emen artu da. Or agiri danez, Batzaren aztelenco bileran espaňaŕ auzia aztertuteko eskatzen dau espaňaŕ gobernuak.

España'ren eskariz lotazilean "Sociedad de Naciones" izan eban bilereak, "espaňaŕ auzian atzeŕitaŕ estadu batzuk sartuteak dauan ondorena" aztertutea izan eban asmo, baňa orduan ere, espaňaŕ Gobernuak, lotazilaren 12'gn. artutako erabakiak auzia len bezela utzi ebela, ezer argitu barik, adirazi eban.

Oŕez ganera, espaňaŕ gobernuak baŕaren baŕi batzaŕa eskatuteko eskubidea beregandu eban, azterketa baŕia egin eitean. Ta une aretan, Lateŕi Batza'k, España'ko gobernu jator balkartzat Valencia'ko gobernua etsi eban.

Geiago ere, ba diño Giral Pereira ministruak bere agirian: España'ko auzian afotzak, erabaki ori izan zanetik aŕezkero, euren lanak eta esku artzeak geitu baño ez dituе egin, eta iňork ukatu ezin daiken zio orixe dala-ta, auzia baŕiro aztertu bear dana argi ta garbi erakutsi daikegu."

Batzakoen artekoak diňoenez, espaňaŕ gobernuaren eskari ori kaltegaŕi izango da S. de N. ta Italia'ren artuemonak antolatuteko, eta batez ere, Italia ta Inglateŕa'ren artekoak.

Alvarez del Vayo, espaňaŕ ordezkariak, argibide ugari eroango ditu Lateŕi Batzaren bilerara, ez sartzeo erabakiak zapaldu eta ezereztu egin dituela Alemania'k eta Italia'k, azalduaz, ta agiri garbiekaz agertuaz, gaňera.

Emen uste danez, salakuntza oŕek egiztauteko, España'ra batzorde bat joan dedila eskatuko ei-dau Alvarez del Vayo'k. Baňa batzaŕak asmo ori aintzat artutea gaitz izango dalakoa diňoe.

Erbeste arazuetako ministru ingelesak eta prantzesak ori baño beste zeregin koipeagorik izango dabe, ziur asko; Eden'ek eta Delbos'ek, Ginebra'n, uŕengo asteam espaňar ordezkarien itzaldiak bigundu ta gazagotuten jardungo dabe, Italia asaŕatu ez dedin.

Lateŕi Batzari erabagi zeatza artzeko eskatu leyola Del Vayo'k, diňoe emen. España'ren kaltez Italia'k eta Alemania'k erazo egin dautsela, eta beraz, Batza'ko diran estaduak ezin leyoela geiago ezer ukatu espaňaŕ gobernu erkaldaŕari bere burua zainduteko.

Ez-sartzeko lateŕi batzordeak artutako erabakia zainduaz, Frantze eta Inglateŕa espaňaŕ gobernuari guda-gairik emoten ukatu egin dira.

Italia ta Alemania estadu erasotzale esitea, erabaki gogoŕegia izango da nonbait, Lateŕi Batza'k artuteko.

Italia'tzaz kritika txikaŕena egitea ere Lateŕi Batza'n ez ei-leuke Mussolini'k laketuko, eta Italia batza oŕetatik aldegindа jaŕiko ei-leuke, ta origaitik beste estadu enparuak oŕelako asaŕerik ez dabe nai-ta. auzia lenean lotuko da.

EGUNA

JEL

Egija.
Euzkadi Abeŕi txikija da, geuria baña.
Eta bere luŕaldiaren neurkin bat eta euzkotar bat diran bitartian iraungo da.

Lgo. urtia | 120'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 22'gna. larunbatan | 15 eunen

Españar gudako izpaŕak-eta

Eŕepublikaŕen egazkiñak Toledo'ko guda-lekuak suagatu ditue

Izkillu olako etxe guztiak beia jota dagoz.-Katedralaren toŕeak austuta geratu dira, euretan paxistak izkillazkaŕak eukezalako.-Andalucia'ko bidean paxistak auŕerakada txiki bat egin nai izan eben, baña eŕepublikar gudariak laster kendu eutsen gogo ori. - Hospital Clinico dalakoan dagozan paxisten estutasunak.

ERDIALDEKO GUDA-OIÑETAN ASI DIRA BUŔUKAN

Madrid.—Tajo Egoaldea izan da buŕuka toki gaur. Erkaldaok La Vega'n asaldariok eukezan guda-tokien aurka egin dabe ekiñaldi bat eta ekiñaldi oŕetan edozeinbat il dautsen paxistoi ta guda-toki ta luban batzuk apurtu, be, bai.

Sail batzuetan gudari geiano juan dira paxistoi laguntzera; luŕ-jota dagoz gudariok eta guztiz adorekatuta; erkaldaŕen joaldiei malcal erantzuten dautse ta ezin eutsi daikioe.

Erkaldaŕen suagalariok Toledo inguruko etxedietan esibatututa dagozanen guda-tokiak suagatu dabez; Toledo alde oŕetan gudari ta izkillu gitxi samar daukee asaldariok; uritik kanpora toki batzuetan ofaitiño izkilazkaŕ eta morteruak edozeinbat daukez.

Toki ofeitan izkillazkaŕ eta morteruekin egozenak erkaldaŕ suagalari ta egazkiñen suagalseten bildurez beste toki batzuetara aldatu dira.

Asaldarion egazkiñok ikusketak egiten ten ibili dira.

Erkaldaŕenak goiz-erdian paxiston guda-toki batzuk eta batez, be, Toledo'ko Gotzain-etxeko Gudaletxea suagatu dabez.

Jarama aldean asaldariok suagaketa bizi-bizia egin ostean, erkaldaŕon guda-tokion aurka ekiñaldia egin dabe.

Suagaketa jasan ondoren guda-lubanetatik urten eta gertu jaŕi ziran asaldarion joaldiari eusteko. Paxistok baiña joaldi-saioa baiño ez eben egin.

Las Navas aldean, be, izan da buŕuka ekiñaldi bat.

Paxistok zerbait gertetan asi ziran eta erkaldaŕ suagalariak iru ondoren buruan suagatu ebezan asaldarion sailak.

Madrid uri ondoko guda-oiñetan bakretan egon dira.

Puente de los Franceses, La Coruña bitxabalean eta Ciudad Universitaria'n erkaldaŕ suagalariak egin ebezan ekiñaldittxo batzuk.

Guda-oinguzti ofeitan ikusketak egiten ibili ziran erkaldaŕ egazkinlariak.

GUDA-OIÑETARA BEGIRA

Madrid.—Euzkadi'n asaldariok azkenengo egunotan egin dabezan joaldiak ez dauke gaŕantzi aundirik; aueko egunotan ouki ebazan galtze aundien ostean, arriuok euron gudari taldeok ber-eraldu beaa izan dabe. Asaldarion bultzada ta erasuoi, euzkota gudari kementsuak eutsi egin eutsen.

Leon aldean, be, asaldariok auŕera egin naiz asi egin dira baiña alperik.

Erdialdean egunotan bere-aldi dogu.

Sierra'n zerbait bederen auŕega egin zan.

Bitarte bila ibili dira asaldariok Madrid aldean eta Andalucia'rako bitxabaletik idoroko ebala uste eban eta sail oŕetatik ijoten asi ziran.

Suagalariak jarddun biziak egin dabez toki batzuetan.

Pingarron mendian erkaldaŕak guda-burdi ta suagalarien laguntzaz paxistou mende egozan sailak-zear itzaldia egin eben eta asaldariok auŕeko guda-lubanak laga ta atzeragokuetan sartu beaŕa izan c'oen.

Egazkinlariak Jadraque ta Siguenza suagatu ebezan. Eŕitaŕak uri oŕeitatik atara beaŕa izan dabe.

Toledo'n geltokia suagatu eben. Toledo'ko izkillu-olea guztiz zuritu dabe. Katedraleko doŕeetan izkilazkaŕak eukezan eta suagez bidez apurtu dabez. Guda Agintaritza Nagusia euken etxea, be, apurtu eben erkaldaŕak.

PAXISTOKIN IGOINDUTA IGES

Madrid.—Ciudad Universitaria'n buŕuka ekiñaldi batzuk izan dira.

Hospital Clinico'tik iges egin eta erkaldaŕengana zortzi gudari etoŕi ziran. Iges egitea guztiz zail da-ta, oŕeik, be, aŕisku aundiak igaro beaŕa izan eben. Uretan ebiltzan eta uretara uazan aikilluluz iges egin eben. Eurokin unetara denengo osterea egin eben iru paxista gudariengandik alden'du ziranean, iges egin eban.

Luŕean tataŕez ta makurtuta aldeten asi ziran eta agirik toki batera atara ziranean, dumbadoska egin eutsen euren lagunak.

Eurok egon diran Clinico etxe oŕetan izpiazgolariak ei-daukez tartean ipiñita ta gudariak euren kaltezkorik egin edo esaten ba-dabe agintariak beingoan iakiten ei-dabe ta salatutakooi len besterikoa izan ba-da edo olako zerbait lenago egin ba dau, erail egiten ei-dabe.

Atzo, be, beste gudarien auŕean guda-agintari bat il ei-eben.

Euzkotaŕak eŕikatzen

Atzo urten ziran 400 ume

Atera dira Santurtze'tik Inglaterra alderantz lau mila ume euzkotaŕ, paxisten izugaŕikerien igesi. Atzo goizeko sei ta erdietan urten eben Bilbao'ko ibaietik, "Habana" ontzian. "Goizeko Izaŕa"n beste 350 lagun atera ziran, ateun bi auŕetik zaintzale zituela, eta "Ciscar" destroyer dalakoa atzetik, lateŕi uretaraño, ta andik auŕerantza, bestetan bezela, ingeles gudontziak zainduta.

Aŕatsalde erdian asi ziran ume taldeak Santurtze'ra elduten, euren zaitzale ta irakasleak lagun zituela. Etzan molamaiko loa, guztiak jagon eta bear bezela atonduta ontziratzean. Aŕaz ere, lanbide atsegiña ba-zan, gogoz eta astiz egoki burutu eben, ofaitiño.

Balkoitzak bere zenbakia zeukan, eta oŕela arazua asko eŕeztu eben.

Agindariak ere pilaka eldu ziran umeakaua, agur egitera eta gertuketa guztiak euren begiz ikusi ta berbarak atondu nairik. Jaurlaritza'ko lendakari jauna, Eŕi-Zaintza, Saleroseketa ta Osasun Zaingoetako burukideak antxe ziran, beste lagun askogaz, atzefitaŕ izparkariak orobat.

Oŕez ganera, Eŕi-Zaintza eta Gizarte Laguntza, eŕikatse araau onen ardura daben bi zaingoetako idazkari nagusiak antxe ari ziran etenbage lanetan, azken gertakizunak burututen eta umeak agurtuten. Inglaterra'ren ordezkaritzaren lagunak ere bertan ikusi genduzan, euren artean Stevenson jauna.

Manning anderea bereziki aipatu beaŕ. Jo ta su, umeak ingeles lufaldetara emengo aŕiskuetatik atarauta eroaten aspertzeke jardun izan dauan andere onen izena ez dau gure eŕiak iñolaz aztuko. Beroneekin batean ditu osagile azkar eta gexozain andere txalogaŕiak ere.

Agurtzerakoan, Manning andereaz itzegin dogu, eta auxe azaldu euskun: Bilbao'kin pozez nago, agindari guztiak ondo baño obeto artu nabe-ta, batez ere, Gizarte Laguntza ta Eŕi-Zaintzako otsein guztiak. Ume pila auek, neure ardurapean utzi dituen umeok, ondo artu eta zainduak izango dirala esan daiket, euren etxietako antzera egongo dirala Inglaterra'n. Bear dan arte, aŋ eukiko dittugu; ta gudea amaitzerakoan, alik lenen n'k opa eŕi zintzo onen garaitza, ume pozik andiona lan mila umeakin baŕiro Bilbao'ra itzultzea izango neuke.

Southampton'en legoferatuko dira, "Habana"n joan dira euzko ume ta gaztetxuok.

AU, ORI TA BESTEA

Alemaniaŕak asaŕe bero dira Mundelein kardenalaren aurka. Van Zeeland, Ameriketara. - Eden'en, itzaldia. - Itxasontzi erakusketa ta ikusketa ospatsua Portsmouth'en. - Eŕege sendia an izan da jai zaratatsuok ikusten. - Beste izpaŕak.

ITALIA'KO EREGEAK

Berlin.—Italia'ko eŕegeak Budapest'era egin daben ostereak zer esan ugari sortu dau politika batzokietan. Izpaŕingi geienak Italia, Alemania eta Ungria'ren artean dagoz adizkidetasuna goratzen dabe. Ikertaldi onetatik lortuko diran ondorenak bakearentzat ongaŕi izango dirala uste da. "Berliner Tageblatt" izpaŕingiak diño Ungria'k Italia eta Alemania'ri zor dautsela Danubio'ko eŕien artean guda-ala lortzea eta Italia'k ez dabela danubioaŕ eŕietako politikea amaitutzat emango. Rumania'ra zubi batzuk luzatzea lortzen ez ba'dau.

ALEMANIA'REN ASMUAK

Berlin. — Alemania gertu dago Aita Santua'ri Mudelain kardenalaren aurkako neuŕiak artu eragiteko edozer egiteko. Politikoen artean diñoenez, kardenalaren itzaldia dala-ta, Lateŕi Batuetan (Estados Unidos) dagozan alemaniaŕen aurkako guztiak geruago batuago aurkitzen dira Alemania'ren aurka. Izpaŕingi batzuk kardenalari ezaŕi gura dautse eŕua judataŕak agertu daben boicot dalakoan be. Lateŕi Batuetatik zabaldu izan da Aita Santuak ontzat artu dabela Mundelein kardenalaren itzaldia. Ori jakin danean alemaniaŕak irakiten dagozala esan daikegu eta asaŕe biziz agertuten dira Vaticano'ren aurka.

VAN ZEELAND AMERIKETARA

Bruselas.—Van Zeeland'ek Ameriketarako urtengo dau Bagila'ren 11'an "Berengaria" ontziaren baŕuan.

GUDA ZAINGOKO BATZAŔA

Paris. — Frantzia'ko Guda Batzordeak bat egin eban atzo Daladier buru zala. Batzaŕ onetan izan ziran Blum eta Delbos jaunak. Ginebra'n desarme dalako batzaŕean erabagiko diran gaiak aztertu zirala uste da

AUSTRIA'KO ORDEZKARIAREN IKERTALDIA

Paris.—Austria'ko Erbeste-arazuen arduradunak egin daben ikertaldia, Frantzia eta Austria'ren artean dagon adizkidetasuna agertzeko izan dala uste dabe politikorik geienak. Schmidt eta Delbos'en arteko jardunaldiak beaŕ-beaŕekoak uste izan ziran, baña, Europa'ren erdialdeko egoera aztertuteko.

Roma eta Berlin bitarteko azkatasuna zaintzeko Schuschnigg'ek bilatzen ditun eragozpenakaz Frantzia kontura jausi da. Frantzia'ko politikoen uste, Austria, Hungria eta Txekoeslobakia'ren arteko alkar-ulertzea egokiago aztertu ta [illegible] Lateŕi Batza'n.

EDEN'EN ITZALDIA

Londres. — "Daily Express" izpaŕingiak diñoanez, Bakalderiko batzarean Eden'ek egin eban itzaldia agertu ez danaŕen, iru zatiduna izan zala esan daike. 1.—Europa'ren Sarkaldeko bearkunak. 2.—Europa'ren Erdialdean eta Sortalde-Bealdeko artu-emonak. 3.—Lateŕi-Batza'ren ezaupide itsua.

Itzaldia itxaropentsua izan zan, izpaŕingi berberak diñoanez.

ITXASONTZI ERAKUSKETA TA IKUSKETEA

Londres.—Bultzi berezietan. balbilelan, t. a. Portsmouth'era ostetza aundia juan da Spithead'ko gudontzi-erakusketea ikusteto asmoz. Eŕege-Eŕegiñak ta Elisabeth Eŕegiñagaiak Eŕegeon Itxassuntzian gaba igaro eben eta Itxas-Agintaritza'ko Jaunak, gudontzi-sailetako iru agintari-burazagiak. Ingelatera'ko ta bere aginpideko Lateŕietako gudontzien ontziburu ta agintaŕak, saleroseketa-itxasontzi taldeen ordezkariak eta Spithead'en dagozan aŕantzu-ontzietako ordezkariak agurti dau Eŕegeak ontzi oŕetan.

Goizeko zortzirak-ezkero an egozan ontziak zapaz, ikuŕez ta edaŕgaŕiz guztiz edarto apaiñduta egozan. Erakusketa oŕetan 277 ontzi agiri dira; oŕdagoz urpeko gudontzi, galtzaiduzko azaldun, arin-aringarako ontzi berezi, ta ostingo gudontzi ta itxasontzi mueta guztietakoak. 277 ontzik 160 gudontziak dira. Gaur aŕatsaldez egingo dau Eŕegeak ontzi ikusketeoi ta Eŕegea ikusketeoi egitera duanean, ontzi guztiak batera agurtuko dabe dunbada-bana jaurtiaz.

Euzko guda oñetan

(Lenengo oŕitik datoŕ.)

Estak dagozan lekuak be suagatu zituezan, euretara bonba astun eta andiak jaurtiaz.

Lezama, Zamudio, Derio eta abaŕetan bonbarik naiko jaurti eben. Kalterik ez eben egin oŕaitio giza-semien artean, aspaldiko lanak jentea itxartuta ta zuŕ laga dabelako egazkiñak agertzen diranetako.

Egazkiñon etengabeko lanau izan ezik ez gendun oargaŕirik bilatu gure mendietan gorago idatzi doguna izan ezik.

GUDARI BATEK IGES EGIN

Zornotza'ko gure guda-oñetara gudari bat etoŕi zan paxistei iges egin da. Oraŕarte Amerika [illegible] da saildiko gudaria izan da.

Gure artera eldu zanean pozez ganezka agertu zan.

ESPAÑA'KO ARAZUAK

Paxistar kutsundun azpikeriak eŕo-eŕotik ateratzen alegintzen da gobernu beŕia

Alderdi batzuen jokabidea

Madrid.—Naste-zaleak soŕtu oi dituzten matasa guztiak eta paxiotaŕ kutsudun azpikeriak eŕo-eŕotik ateratzen alegiñak-alegin eta etengabean asi da Gobernu beŕia. Erkaldaŕ España osoak, Madrid eta Barcelona taŕeko, Negrin jaunaren Jaurlaritzari dioten menpetasun eta begiramena aŕigaŕia da. Baiña anarko - sindikalista, politikadun eta kandidatoai esko egin zienez, Gobernuak sutan jaŕi ditu aurkakariok. Ez emen eta ez ostontzeko erkaldaŕ lufaldetan, Gobernuak beaŕ ziran neuŕiak lenen - lenengotik aŕtu zitualako eta iñoŕk nasterik soŕtu nai izatekotan berban bera amaitzerazotzeko gertu dagolako, ez da negaŕgaŕikerirŕik gertatu.

Bere menpeko lufalde guztian, guda-oñetan, baita Madrid'en bertan ere, gauzak berenez zaintzea Miaja Burazagiaren lepo dago atzo ezkerotik; jaun onek adixkidetasun-min asko ditu gudataldetan, baita soziaiisten euronetan ere. Madrid'eko Eŕi-Jaurlaritzak bestetan oi bezela lan egingo du.

Gobernuaren beste neuŕi-artze egoki sindikalisten goizeko egunkari "Castilla libre,,'ko iraŕkola itxitzea izan da. Neuŕi-aŕtze oŕek min aundia eman zien C. N. T.'ko bazkideai; eta ori bide, "C. N. T." izpaŕingia argitaltzeari euren gogoz utsi diote.

Egunkari biok azkenengo egunotan idazlan gordiñak argitaratu dituzte Gobernuaren aurka.

Beste izpaŕingi bat, "El Sindicalista", argitaratzea laketu zuan, ugari ziribotututa. Egunkari au C. N. T.'koen aurkakoa da ta Pestaña'taŕ Gotzon bertako zuzendari. Au Aldun-Batza bafuan degu orain eta Negrin'en jaurlaritzaren laguntzaile zintzo. Erantzupen aundien duten zubalkundelariak nasterik ez soŕtu ta bare ta sentzunez jokatzeko aŕenka dira euren bazkideai.

Eŕkaldaŕ lufalde orotan, sozialista-langile-batzak Negrin'en jaurlaritzaren alde eman dute euren autaŕkia eta batzuk gaiñera gogoŕ jardun dete euren burukide ta Lateŕi-Batzorde-Erabakitzaileari, U. G. T.'k Largo Caballero lendakari ta guda-zaingoko burukide izatekotan bakaŕik Gobernua ontzat emango zuala azaldu zualako.

U. G. T.'k Gobernuari lagun dagiona argi ta garbi azaltzen du atzo gabaz esan zutenak: astelenez Ginebra'ra joango zala, Lateŕi-Batzan España'ren ordezkari izatekotan, Atzeŕi-Arazoetako ministru izandako Alvarez del Vayo'taŕ Juli. Alderdi ororj begiratuaz, Gobernuak jokera gogoŕ duana ta erkaldaŕ España'k orajndik, azkazaletasun-bideak uŕatuaz, etxeko jaŕi-aldiak nasaitu aŕ ba-duana ezpai gabe esan genezake. Ala ta guztiz, betj da erantzupenik ez duten aurkalariak ez-beaŕen bat soŕtzeko aldi; baiña, ez da eŕaz izango Gobernua oŕelako ezbeaŕi aurbegi emateko aldiŕik soŕtzea.

GUDA-AMAITZEKO

Eŕien gogoak aztertzen

Politiko baten lanak

Londres.—Uri ontako "Daily Herald" izpaŕingian Ewer Nerwe'k idatzi duan idazlanak diñoez, beŕiro ere alegiñak-alegin egin ditu España ondatzen ari dan gudatea aŕindu ta al balitz amaitzeko beste jau lateŕi indartsuai lagun egiteko eskatuaz.

Auxe esan du Ewer'ek, ez agintari-itufiz, berenez baiño: Oraintsu egun batzuk Frantze, Rusia, Alemania ta Italia'ren barne-giroa aztertzen jardun zuan Whitehall'ek, españaŕ paxistaŕai eta erkaldaŕai erabaki bat aurkezteko gertu ote dauden jakitzeko.

Quai d'Orsay bakaŕik agertu zan oŕen aldeko. Erkaldaŕak gurenda loztzeko duan bide egokia bururatuta, oŕelako erabakiaren beaŕik ez dala erantzun du Rusia'k. Alemania'k eta Italia'k ere ez dute nai era ortaz gudatea amaitzerik, gurenda paxistaŕ asaldarjena dalakoan tinko daude-ta.